

# Gotzainen Sinodoan arreta bereganatu zuen Juan Maria Uriartek urrian Erroman

*Talde hispano-portugaldarraren esatari jardun zuen orduko bilkuran*

Mikel Ruiz / Donostia

**Vatikanoak Donostiarako izendatu berri duen Uriarte gotzainak oihartzun handia hartu zuen urrian Vatikanoan egin zen Gotzainen Sinodo-**

**an. Diskurtsoa egin zuen Sinodoaren batzar nagusian, eta gogoeta talde hispano-portugaldarreko esatari eta bozeramaile izan zen Gotzainen Sinodoaren Europarako Bigarren Batzar Berezian. Uriarte gotzaina**

**urriko egun horietan egindako lana goraipatu egin dute Sinodoaren berri gertutik segitu dutenek. Europako Ebangilizazioaz jardun zuen Sinodoak, eta mundu osoko gotzainak bildu zituen urriaren 1etik 23ra.**

MUNDU OSOKO gotzainik garrantzitsuenen ezagutza eta errekonozimendua jasota hartuko du datorren hilean Donostiako Elizbarrutiaren gidaritzaz Juan Maria Uriarte gotzainak. Joan den urteko urrian zehar Vatikanoan Gotzainen Sinodoa egin zuten Joan Paulo II.a Aita Santuaren zuzendaritzapean, eta bilkura horretan oso paper txalotua jokatu zuen orain arte Zamorako (Espainia) gotzain izan denak. Sindoko Errelatore Nagusiaren eskutik, Antonio Maria Rouco Varela kardinal espainarra, Uriarte gotzainak ponentzia bat irakurri zuen, *Katekesi sendoa sustatu* izenburuko eta Iritzia sailean gaur EGUNKARIAk argitaratzen duena. Horrezaz gain Sinodoaren talde linguistiko baten koordinazioa hartu zuen, hispano-portugaldarrarena hain zuzen. Gotzainen Sinodoko partaideak, mundu osoko Gotzainen Batzarretako ordezkariak, komunikazioa erraztearren, talde linguistikoetan banatuta eztabaida taldeak osatzen dituzte. Uriartek hispano-portugaldarraren ardura hartu zuen. Halaber, talde horretan eztabaidatutakoaren berri eman zuen Sinodoaren plenarioaren aurrean. Bilan horiengatik Sinodoan parte hartu duten gotzainen errekonozimendua jaso zuen Donostiako gotzain berriak.

## Ebanjelizazioa

Joan den urteko urrian Erroman egin zen Sinodoan Europako ebanjelizazioaz jardun zuten bildutakoek. Sinodoan mundu osoko gotzainek hartzen dute parte, ez ordea guztiek. Herri bakoitzeko Gotzainen Batzarrek bere ordezkariak aukeratzen ditu. Zenbait begirale seglarek ere hartzen dute parte sinodoetan, normalean batzarrek jorratzen dituen gaietan adituak direlako gonbidatzen dituztenak. Iruñeko eta Tuterako Artza-



Juan Maria Uriarte, Zamorako katedralaren maketa batekin, Donostiako gotzain izendatu zutela jakin zen egunean.

## Erroman, Rouco Varelaeren eskutik

URIARTE gotzainak ez du nolanahiko *aitapontea* izan duela hiru hilabeteko Sinodoan: Rouco Varela Espainiako Primatua, Madrilgo kardenala eta Espainiako Gotzainen Batzarreko lehendakaria dena. Rouco Varela, 1998an jantzi zuen Joan Paulo II.ak kardinal, urriko Gotzainen Sindoko Errelatore Nagusia izan da. Sino-

doaren buru Aita Santua bada ere, errelatore nagusiak darama antolaketa, koordinazioa, lan taldeen prestaketa eta ondorien bildumaren lana, eta lan astun horretan gertuko laguntzailea nahi izan zuen alboan. Horregatik izendatu zuen Espainiako Gotzainen Batzarreko Uriarte gotzaina Sinodoko partaide. Gero Rouco

Varela Uriarte gotzaina lantalde hispano-portugaldarraren errelatoretzarako proposatu zuen. Sindoa mundu osoko gotzainen aurrean eduki litekeen tribunarik onean da; ia hilabete iraun zuen egindako azkenak, eta Uriartek, zuen arduraren ondorioz, hitzaldi bat irakurtzeko aukera izan zuen plenarioan, gotzain guztiak

entzule zituela. Rouco Varela kardenalaren izena gero eta gehiago ari da nabarmentzen aita santu honen ondorengoa aukeratzeko zabaltzen ari diren kineletan.

Joan Paulo II.a bera ere izan zen behin, Paulo VI.ak eskatuta, sinodo bateko errelatore nagusia. *Aitaponteko* ona du Juan Maria Uriartek.

pezpiku Fernando Sebastianek ere hartu zuen parte Sinodoan, Espainiako Gotzainen Batzarrek hala proposatu eta izendatuta.

Sinodoa Paulo VI.a Aita Santuak 1965ean sortutako

erakunde iraunkorra da, Vatikanoko II. Kontzilioan parte hartu zutenen eskariz, kontzilio horretan bizi izandako «esperientziaren izpiritu» gal ez zedin.

Sinodoaren egitura sortze-

aren idearen atzean gotzainei Elizako gobernuan esku hartze zuzenagoa emateko berrondea zegoen, nolabaiteko itzalpeko gobernu sortzea, Vatikaniko Kuria ahalguztidunari aurre egiteko.

## erreakzioak

### Elkarri •

**«Setien bidegabeki tratatua izan da»**

► Setien «bidegabeki» tratatua izan dela adierazi zuen Elkarri erakundeak. «Bakearen eraikuntzarako eta elkarbizitzarako printzipio etiko eta moralen defentsari» independentziaz eutsi izanagatik nabarmendu da Setien Elkarriren iritziz. «Seguruenik, inoiz ez da aski baloratua eta aitortua izango Setienek arlo horretan egin duen ekarpena», dio Elkarrik.

### Manuel Fraga •

Galiziako Xuntako lehendakaria

**«Asmatu egin da Uriarteren izendapenarekin»**

► Setienen ordezkari Uriarte izendatzean eliz agintariek asmatu egin dutela adierazi zuen Manuel Fraga Galiziako Xuntako presidentek. Duela urte asko Jose Maria Setien bere ikasle izan zela gogoratu zuen Fragak, eta Setien osasunean hobera egitea opa zion, «kargua uzteko osasun arrazoiak aipatu dituenez».

### Manuel Huertas •

Gipuzkoako PSE-EE

**«Uriarte ez da hain polemikoa izango»**

► Uriarterengandik «asko» espero duela esan zuen Manuel Huertas Gipuzkoako PSE-EEko idazkari nagusiak. «Aurrekariak ikusita», Uriarteren jokera Setiena bezain polemikoa ez dela izango uste du. Apezpikuak politika alorrean ez sartzea komeniko litzatekeela gehitu zuen, «horretarako politikak baitaude».

### Rosa Aguilar • IU

**«Apezpiku atipikoa izan da Setien»**

► «Setien «apezpiku atipikoa» izan dela adierazi zuen Rosa Aguilar Cordobako alkate eta IUko diputatuak, iritzi propioak izan dituela eta adierazi egin dituelako. Aguilarren ustez tolerantzia guxti erakutsi izan zaio batzuetan Setieni. Uriartek elkarriketareko joera duela eta bake prozesurako «positiboa izango dela esan zuen».